

# Eskuak gora!

Sonia Villamor

---

## 1. ESZENA

Entrenatzailea eta poliziaburua eszenatokian ikusiko ditugu. Txos-ten batzuk irakurtzen ari dira. Medikua zain dago, bere gauzak pres-tatzen. Poliziagaiek osasun-azterketa dute.

*Entrenatzailea:* ...Ahal dudana egiten dut, baina...

*Poliziaburua:* Ezta aipatu ere, mesedez. Inoiz izan dugun promoziorik txarrena da.

*Entrenatzailea:* Saiatu eta saiatu, beti berdin egoteko.

*Poliziaburua:* Lokartzen dira; korrika eginez gero haize barik geratzen dira; eta inteligentzia mailari buruz, zer esanik ez!

*Entrenatzailea:* Tira, utz dezagun hau albo batera. Ordua da. Gaur osasun-azterketa dute.

*Poliziaburua:* Egun on, mediku jauna. Laguntzailerik gabe etorri zara gaur?

*Medikua:* Hala da, nik bakarrik egin dezaket. Lehena pasa dadila, mesedez.

Orduan, 3 poliziagai agertuko dira, “pijak”, hain zuzen. Beti doaz ba-tera, etengabe hitz egiten dute eta... Pijak arropak janzten eta maki-llatzen sartuko dira; erdi lo daude oraindik. Poliziaburua eta entre-natzailea albo batean geratuko dira, eszenaren lekuko izango dira.

*P1: Egun on!*

*P2: Ai ama, zer goiz den!*

*P3: Niri odolik ez atera mesedez, zorabiatzen naiz.*

*Medikua: Lasai egon zaitezte. Ez dizuet minik emango. (Erizainari)  
Lehenengo froga azaldu dizuet (puxika batzuk ateraz):  
zuen biriken egoera aztertu behar dugu.*

Puxikak puutzen hasiko dira hirurak, gorritu egiten dira, ikaragarri-zko ahalegina egiten dute. Azkenean, zorabiatu, eta lurrera erori-ko dira. Une horretarako musika. Beste lau pertsonaia animatzen egongo dira, partida batean bezala. KATXONDEOA.

*Poliziaburua: Zelako desastrea!*

*Entrenatzailea: Hauek ez dira txarrenak, ai ama!*

Medikuak, entrenatzaileak eta poliziaburuak altxatzen laguntzen diete. Pijak kexaka hasten dira.

*P1: Atzazkala apurtu zait, ospitalera joan behar dut.*

*P2: Nola dut ilea?*

*P3: Hau nekea, hau! Froga madarikatua!*

*P1: (Medikuari) Kontuz ibili gurekin.*

*P2: Salaketa bat jarri...*

*P3: ...eta akabatuta zaude!*

Pijak haserre gelditzen dira. Plantak egiten dituzte.

*Medikua:* Hamaika ikusteko jaiok gara!  
*Poliziaburua:* ... edo hamabi...  
*Entrenatzailea:* Hobe jarraitzen badugu.  
*Medikua:* Zure esanetara. Hurrengoa!  
*Medikua:* Prest zaudete hurrengo frogarako: lasterketa bat.  
*P1:* Lan handia egin dut, jada azkarrenetariko bat naiz.  
 (Korrika erakustaldi txiki bat egiten du, errenka)  
*P2:* Zer? Korrika egitera joan behar dugula aterai  
 no? A! Hori bai erraza!  
*Medikua:* Ez mugitu eta eseri hemen, mesedez. Erre  
 flexuak begiratzera goaz.

Medikuak mailua atera, eta froga egiten hasiko da. Kolpearekin ba-tera P1 hasiko da ostikoak ematen, eta P2 eta P3 barrezka. Medikua lurrera jausiko da kolpeagatik. Poliziaburua eta entrenatzailea lur jota ikusiko ditugu.

Musikaren txanda. Komisaldegiko kanta. Guztiek abestuko dute eta, kantarekin batera, erabili dituzten objektuak aterako dituzte. Musika amiatu eta batera, hurrengo eszenaren elementuak ipiniko ditugu. Izan daitezke mahai bat, kartetan aritzeko; ariketa fisikoak egiteko objektuak... Lapurren zuloa izango da.

## 2. ESZENA. LAPURREN ZULOA

Mahaiaren inguruan lau lapur ikusiko ditugu, plano batzuk aztertzen. Banketxearen planoak dira. Lapurreta bat prestatzen ari dira.

*L1:* Orena, goizez egitea.  
*L2:* Baina ikusi egingo gaituzte!  
*L4:* Ez larritu, motel! Mozorrotuta joango gara.

- L3: *Nik «bailaora» jantzia daukat. (Dantzan hasiko da, ole!)*  
 L1: *Ez esan txorakeriarik!*  
 L2: *Burua estaliko dugu, hori da! Mozorroa.*  
 L3: *A! Baina, gidatzeko, begiak behar ditut.*  
 L1: *(L4ri) Baina nork ekarri du «fenómeno» hau?*  
 L4: *(Ahopeka) Nagusiaren laguna da, beraz... (Ixilik egoteko plantak egiten ditu).*

Musikak joko du («El Padrino», adibidez). Egiten daudena utzi, eta harrera prestatzen dute guztiek. Nagusia sartzen da.

- L1: *Ongi etorri, jauna.*  
 L2: *Zer moduz?*  
 L4: *Bidaia atsegina izan da?*  
 L3: *Gosaria, goxo? (Besteek gaizki begiratzen diote).*

Tentsio handiko unea sortzen da. Ixiltasuna. Lapurrak beldurtuta daude nagusiaren aurrean.

*Nagusia: Lana bihar burutu beharko duzue, une egokiena da: banketxeko langile bi oportetan daude, komisaldegia hankaz gora dago eta ni banketxeko zuzendaria naizenez, dena errezagot ipiniko dizuet. (Ba-rrezka hasiko da; besteek izututa jarraitzen dute). Erreparasatu plana, beraz, eta zorte on! Ez dut akatsik nahi!*

Nagusia badoa, lehenagoko musika berdinarekin. Lapurrak eztabai-dutzen eta plana erreparasatzen ikusiko ditugu. Beste musika batek joko du, lapurren kanta, musikarako tartea: koreografia, eta eszena desegingo da.

*Lapur trebeak gara,  
 Asmo handi bakarra,*

*Banketxetik di-da batean diru guztia atara.*

*Money, Money.*

*Money Money.*

*Zuzendaria kide,*

*Lapurtzea lanbide,*

*Polizia inozo hauekin*

*Beti izango gara libre.*

*Money, Money.*

*Ez egon hain seguru,*

*Inozo, artaburu!*

*Zuek atxilotzeko gogo handia bait daukagu.*

*Espetxera, espetxera.*

*Espetxera, espetxera.*

*Dena daukagu presto*

*Esposak eskuz-eskuz.*

*Komisaledegian dantzatuko dugu*

*Aurresku aaaaaa!*

### 3. ESZENA

*L1: Tira, plana errepasatuko dugu.*

*L2: Ni lehena sartuko naiz eta lehiatilako langilearekin arduratuko naiz.*

*L3: ... eta ni, bitartean...*

*L4: (L1i) ... jarraian ni sartuko naiz, eta elektrizitatea etengo dut.*

*L3: ... eta ni...*

*L1: Zuek sartzen zaretenerako ni barruan egongo naiz, argia joango denean... zuzendariarekin kutxa nagusia irekitzera abiatuko naiz.*

*L3: ... Bitartean, ni...*

*L2: Lekukoak egonez gero, nire ardurapean geratuko dira.*

- L4: *Leihotik, kalean gertatzen dena kontrolatuko dut.*
- L3: *... (Haserre, inork ez baitio kasurik egiten) Eta ni, non egongo naiz, zer egin beharko dut?*
- L1: *Zuk kotxean itxaron behar duzu, motorra piztuta, han-dik ziztu bizian ateratzeko.*
- L3: *Kotxea gidatu, nik... (Barre egingo du). Auto-txokeetan praktikak egin ditut.*
- L1-L2-L4: *Ooo Ez!!!*

Ilun.

#### 4. ESZENA

Zuzendaria telefono deia egiten ikusiko dugu. Poliziaburuari dei-tuko dio, lapurrak salatzeko. Poliziaburua, entrenatzailearekin, me-dikuarekin eta erizainarekin egongo da.

- Poliziaburua: Komisaldegia, egunon. Norekin ari naiz?*
- Zuzendaria: Ez dizut nire izenik emango, baina informazio garrantzitsua dut zuentzat.*
- Poliziaburua: (Besteei hurbiltzeko keinua eginez) Informazioa? Zein motatakoa?*
- Zuzendaria: Lapurreta baten ingurukoa.*
- Poliziaburua: Lapurreta bat?*
- Medikua: Lapurreta? A zer emozioa! Eskerrak etorri naizen!*
- Entrenatzailea: Bazen garaia. Akzioa!*
- Poliziaburua: Ixilik!*
- Zuzendaria: Ez oihukatu niri! Nola ausartzen zara!*
- Poliziaburua: Ez nintzen zurekin ari.*
- Zuzendaria: Zein errespetu gutxi... Nik arrasto guztiak eman nahian...*

*Poliziaburua:*            *Zer arrasto?*  
*Entrenatzailea:*        *Ai ama! Orain arrastoak!*  
*Medikua:*                *Arrastoak!*  
*Entrenatzailea:*        *Adi! (Entrenatzailea flexioak egiten hasiko da,*  
    *zoro baten pare). Ni beti prest!*  
*Zuzendaria:*            *Tira, ez duzu merezi, baina esango dizut.*  
    *Banketxe Nagusiaren lapurreta, gaur bertan.*  
*Poliziaburua:*            *Gaur??? Baina hori ezin da izan.*  
*Medikua:*                *Ez da posible!*

Medikua abesten hasiko da. Entrenatzaileak beraiekin batera abes-tuko du.

*Zuzendaria:*            *Zer zarata mota da hori? Ez zaude bakarrik ala?*  
*Poliziaburua:*            *Bai, noski.*  
*Zuzendaria:*            *Zer errespetu gutxi! (Telefonoa eskegitzen du).*  
    *Amua botata dago (Barre algarra).*  
*Poliziaburua:*            *Gureak dira.*

Beste pertsonaiak abesten hasiko dira berriz.

## 5. ESZENA

Banketxeko kanpoaldea ikusiko dugu. Ezkutaketa jolasa. Medikua sartzen ikusiko dugu: betaurreko beltzak daramatza, leku guztie-tara begira egongo da. Medikua agertokian ezkutatuko da; jarraian poliziagaiak, entrenatzailea eta poliziaburua sartuko dra, korrikan, leku guztietara begira. Ez daramate jantzi ofizialik, «paisano» jant-zita doaz.

- Entrenatzailea:* *Geldi! Bakoitza bere lekura! Dena argi dago, ezta?*
- P1:* *Garden-gardena. Baina... galderatxo bat... zer egiten dugu hemen?*
- P2:* *Dei bakar batengatik ileapaindegirako txanda galdu dut. Ez dago eskubiderik!*
- P3:* *(P2ri) ... Eta, gainera, deia nork egin duen jakin barik. Agian norbait adarra jotzen ari da.*

Poliziburua eta entrenatzailea desesperaturik daude.

- Poliziaburua:* *Nahikoa da! Hau serioa da, eta lanerako prest ote zaudeten argituko dit. Hasi komisaldegian azaldutako plana betetzen, eta zorte on. Ez dut istripurik nahi!*

Guztiak betaurreko beltzak jantziko dituzte batera.

Poliziak haien lekuan jarriko dira. Disimulatzeko ekintzak, bai-na oso modu nabarian ikusiko da poliziak direla. Bata egunkaria irakurtzen, bestea paseoan...

Jarraian, lapurrak sartuko dira. Lepoko minarekin batzuk, beste bat hankamotz. Guztiak kexaka eta zarataka.

- L1:* *Halakorik, baina! Stop seinalea ez duzu ikusi, ala?*
- L2:* *Nik, lanera baino, ospitalera joan beharko nuke.*
- L4:* *Esan nizuen, honekin ez ginela fio.*
- L3:* *Istriputxoa baino ez da izan. Kexatiak zarete, gero!*
- L1:* *Bueno, bakoitza berera. Zu (L3ri), geldi hemen, eta 5 minutu barru deitu taxi bati.*
- L3:* *Ooo, ez! Nik gidatu nahi dut...*



L2: *Ekarri dugun kotxea txatarrarako dago. Hobe taxia.*

L4: *Planarekin aurrera jarraitu behar dugu. Has gaitezen.*

Lapurrak buruak estaltzen hasiko dira, poliziak konturatuko dira eta, harrapatzera doazenean, banketxeko alarmak joko du. Kriston nahastea sortuko da. Borroka batzuk egongo dira musika entzuten den bitartean. Guztiak «izoztuta» geldituko dira, borroka plantak egiten. Une horretantxe, banketxeko zuzendaria aterako da, eskue-tan maleta pisutsua daramala.

*Zuzendaria: Ikusi duzue zelan amaitzen den istorioa, neuk ospa egin behar dut jada. Hauek guztiak inozo batzuk dira. Nola banatuko dut dirutza hau guztien artean? Orduan, niri, askoz gutxiago geldituko litzaidake, eta nik den-dena nahi dut. Dena behar dut. Orain, adibi-dez, uharte bakarti batzuk ditut zain. Eguzkitan egon, eta atsedena hartzen egongo naiz. Gogor lan egin dut bizitzan. Merezi dut.*

Suabe-suabe koreografiako musika entzungo da, hitzik gabe, eta koreografia berdina egingo dugu agurretarako.

Amaiera.

